2016-IV-12
Número **486.** zenbakia

astekaria

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

www.ela.eus

# EDITORIALA

## Benetako politika industrial baten alde

Azken hilabeteetan Euskal Herriko enpresa industrialetan itxierak edota kaleratze masiboak egiteko erabakiak ezagutzen ari gara. Hau gertatzen ari da hamarkadatan industri-politikarik egon ez delako eta gobernuak botere ekonomikoaren esanetara daudelako; euren lehentasuna propaganda dute, eta erreforma laboralaren moduko legeak ezartzen dituzte, hau da, gero enpresei halako erabakiak hartzeko aukera ematen dietenak.

Euskal Herriko enpresa industrial asko eta asko multinazionalen esku daude. Gobernuek, gainera, erabakiguneak hemendik kanpora eramateko prozesua sustatu egin dute: txaloka hasten dira Euskal Herriko enpresa bat saltzen zen bakoitzean. Guztiz beharrezkoa da, gure industriaren defentsan eta benetako politika industrial baten alde, instituzio desberdinak apustua egitea.

Sektore estrategikoen aldeko apusturik ez dago; orain banku bihurtuta, kutxak zituzten partaidetza industrialak saltzen ari dira. Agintarien kezka ez da proiektu konkretuak ateratzea, propaganda egitea baizik. Azken asteotan agerian geratu da arduradun instituzionalek herri honetako industria ez dutela bat ere ondo ezagutzen. Adibidez, Euskal Herria pairatzen ari den altzairugintzaren egoera dela-eta.

Milaka familiaren etorkizuna zalantzan dago. Industriarik gabeko herri batek ez dauka etorkizunik. Lantegi bat ixten denean kaltedun bakarrak ez dira soilik bertako langileak; halako erabaki batek azpikontratetako jendeari, garraiolariei eta fabrika dagoen herriari edo hiriari ere eragiten die. Euskal Herriko langileen borrokari babesa eman nahi diogu. Etekinak lortzea beste helbururik ez duten multinazionalei duintasunez aurre egiten dietenak dira gizarte honen ordezkaririk hoberenak.

Horregatik, **apirilaren 23an kalera aterako gara Bilbon 'Gure industriaren defentsan, por una política industrial real" lelopean.** Ez hutsik egin!



1.200 EUROTIK GORA
SOLDATA DUIN BATEN ALDE!



# "La patronal y el gobierno vasco comparten la estrategia de la caída salarial"

MÁS DE 3.500 DELEGADOS/AS DE ELA ABARROTARON LA CASILLA Y CLAMARON CONTRA LA PRECARIEDAD, EL 8 DE ABRIL EN BILBAO

**El pasado 8 de abril, ELA reunió en el polideportivo de La Casilla, de Bilbao, a más de 3.500 delegadas y delegados en un jornada contra la precariedad** y la estatalización de la negociación colectiva bajo el lema "Prekario eta menpeko nahi gaituzte. Luchemos contra la precariedad". Junto al secretario general de ELA, Adolfo Muñoz Txiki, tomaron la palabra Leire Txakartegi, Marikruz Elkoro, Igor Eizagirre y Unai Martínez.

Durante su intervención, Muñoz realizó un amplio análisis de coyuntura para acabar denunciando que la patronal y el Gobierno Vasco comparten la estrategia de la caída salarial, y que los instrumentos que determinan cómo se reparte la riqueza, vía negociación colectiva, se deciden fuera de Euskal Herria.

**Al entrar a valorar la campaña** contra la precariedad que está desarrollando el sindicato, Txiki destacó el hecho de que más de 3.500 delegados/as hayan realizado cursos de formación en torno a los contenidos de la campaña y explicó que "la transmisión de la coyuntura, de los retos, de nuestros valores y objetivos la tenemos que hacer nosotros. Si no lo organiza el sindicato, simplemente todo eso no llega". Asimismo, criticó el papel de los medios de comunicación a la hora de hacerse eco las acciones del sindicato. "En el mejor de




**23 DE ABRIL • 12:00 • SAGRADO CORAZÓN • MANIFESTACIÓN**

**GURE INDUSTRIAREN DEFENTSAN. POR UNA POLÍTICA INDUSTRIAL REAL**

los casos, somos una anécdota en su programación". "No les interesa dar voz a la alternativa", afirmó.

En su intervención, el secretario general dio mucha importancia al reto organizativo en la coyuntura actual. "ELA da centralidad a lo organizativo porque la influencia real del sindicato viene dada por la presencia real que logre en las empresas. Sólo con esa base el sindicato será eficaz organizando la defensa de la dignidad en el trabajo, las luchas sociales e influirá políticamente. Si se plantea de otra forma, el sindicato se quedará sin suelo. Y sin suelo, sin base, sin afiliación... no hay nada", afirmó.

Adolfo Muñoz explicó que la campaña contra la precariedad está trabajando tres ejes para colocar en el centro del debate la precariedad laboral y social. "El primero, que la precariedad es la opción estructural de gobiernos y patronal. Se trata de sustituir empleo digno por precario", afirmó con rotundidad. "El segundo, que la miseria laboral arrastra una sociedad más empobrecida. Es imposible sostener unas pensiones dignas con salarios miserables", explicó. "Y el tercero y más importante -rubricó-que sin fuerza no somos nada".

**La ILP de ELA, descafeinada el día anterior en el Parlamento Vasco** no podía escapar a la reflexión de Txiki, quien afirmó que "nos han tumbado la ILP porque la prioridad del Gobierno es la ortodoxia neoliberal y porque ELA no acepta una relación clientelar que conllevaría renunciar a la crítica social", criticó.

Sobre la estatalización de la negociación colectiva -tema ampliamente tratado por otros oradores-, Txiki afirmó que " ELA extrae una conclusión esencialmente política: a los neoliberales vascos lo que hace España les viene bien", para posteriormente interpelar al Lehendakari recordándole que "no hay autogobierno sin instrumentos que nos permitan decidir en nuestro país cómo se reparte la riqueza; no sin negociación colectiva. España, sus leyes y sus míseros




**"Justizia sozialik gabe ez dago demokraziarik"**

**"Patronala eta Eusko Jaurlaritza bat datoz soldatak jaitsiarazteko estrategian eta aberastasuna negoziazio kolektibo bidez banatzeko tresnak Euskal Herritik kanpora erabaki behar direla"**

**"Lan duinik eta politika sozialik gabe zer nolako eraikuntza nazionalaz ari gara?**

**"Gure herriaren burujabetza ez da lortuko gizarte-eredua gutxietsita"**

**"Sindikatua indartu behar dugu enpresetan, borroka sozialetan eta itzal politikoan eragingarri izateko"**

convenios nos empobrecen, y ésa es la apuesta de Confebask y la CEN, de CCOO y UGT, de MCC y del Gobierno Vasco", desveló.

Finalmente, el secretario general desgranó ante los presentes los retos de ELA, que se resumen en uno: SINDICATO. "Para impedir la unilateralidad empresarial y defender el trabajo digno. Para activar una sociedad movilizada en favor de la justicia social. Para dar centralidad al modelo de sociedad en la lucha por la soberanía de Euskal Herria", concluyó.

**Luchar contra la precariedad es posible y lo estamos haciendo.** Tras el acto, -que además de las intervenciones sindicales contó con una aplaudida parodia protagonizada por el presidente de Iberdrola, Ignacio Galán, y que tuvo como colofón la interpretación a guitarra de dos canciones de alto contenido reivindicativo y sentimental- los participantes se dirigieron hacia el Sagrado Corazón, desde donde dio comienzo una ruidosa manifestación que recorrió la Gran Vía y que culminó junto a la Diputación de Bizkaia.

A pesar del mal tiempo, trabajadores/de las residencias de Bizkaia, Aita Menni, mantenimiento de carreteras de Gipuzkoa, TMB, bomberos, Peral o Arcelor Mittal llevaron su lucha por la dignidad laboral y los empleos a la calle, demostrando que la lucha es el camino.





















**¡Nos quieren precarios y sometidos. Lucha contra la precariedad!. Ése fue el lema de la jornada del 8 de abril; un lema que miles de personas trabajadoras de ELA están haciendo realidad.**

# "La estatalización de los convenios es un atraco a la clase trabajadora"

MARI KRUZ ELKORO, SECRETARIA GENERAL DE ZERBITZUAK




Mari Kruz Elkoro, secretaria general de Zerbitzuak, calificó de atraco a la clase trabajadora la estatalización de la negociación colectiva. Elkoro afirmó que esta estrategia antidemocrática tiene tres ingredientes básicos: las reformas laborales de Zapatero y Rajoy, el gobierno y la patronal española -de la que forma parte Confebask- y los cómplices necesarios -CCOO y UGT- que, con independencia de la representación que ostenten en cada sector, deciden que las condiciones a aplicar en adelante las deciden ellos, desde Madrid.

Elkoro explicó que en toda la negociación que están llevando a cabo introducen artículos donde se reservan materias para negociar en exclusiva en el ámbito estatal e imponen la autorización previa de su comisión paritaria para poder abrir nuevos ámbitos de negociación de comunidad autónoma (Navarra/CAPV) o provinciales. En este sentido, la responsable de Zerbitzuak calificó de hipócrita la actuación de CCOO y UGT "que en los últimos años se han autoerigido defensores de los convenios provinciales mientras desde Madrid los hacían desaparecer o los iban vaciando de materias, de contenido".

Elkoro puso como ejemplo del deterioro que supone la estatalización y de las pácticas "ruínes" de los sindicatos y de la patronal española el ámbito de los comedores escolares de la red privada, cafeterías, comedores hospitales, comedores de empresas. Un sector compuesto casi en exclusiva por mujeres, con contratos a tiempo parcial, al que el convenio estatal condena a la miseria al rebajar sus condicones laborales prácticamente a la mitad. "Lo que este convenio sí tiene" -explicó Elkoro, "es una amplia regulación de derechos sindicales y liberados para CCOO y UGT pagados por las empresas a través de figuras como los delegados de formación. Es decir, la contraprestación por "tirar" las condiciones laborales de las trabajadoras y trabajadores son monopolio en la negociación colectiva y prebendas sindicales", dijo.

En otro momento de su intervención, esta responsable sindical incidió en el hecho de que la estatalización no es exclusiva del ámbito privado. "El G.V y también el de Nafarroa utilizan como coartada las leyes básicas para imponer los recortes a los trabajadores y trabajadoras del ámbito público", destacó.

Finalmente, Elkoro aseguró que "no se lo vamos a poner fácil a quienes atentando a la libertad sindical pretenden usurpar nuestros convenios, nuestra representación y nuestras condiciones de trabajo".

# “Azpikontrata publikoetako langileen baldintzak hobetzeko Herri-Ekimena bizi-bizirik dago”

IGOR EIZAGIRRE – GIZALAN FEDERAZIOKO IDAZKARI NAGUSIA




Igor Eizagirrek bere partehartzean nabarmendu zuenez, gurean milaka eta milaka dira zuzenean edo zeharka administrazio publikoarentzat lan egin eta prekarietate egoeran bizi diren langileak. Eta, okerrena dena, kasu askotan administrazio publikoek ez dute arazo larri honekin bukatzeko inolako borondaterik. Horretarako azpikontrata publikoetako langileen lan-baldintzak duindu asmoz gure sindikatuak 2013. urtean habiatu zuen Legegintzako Herri Ekimena jarri zuen adibide gisa.

“Nafarroan, bertako Parlamentuak lege bilakatu zuen gure ekimena, bertan ordezkaritza duten alderdi guztien babesarekin. Ados, legea ez da ehuneko ehunean gure testua, eta egia da ere kasu guzti-guztietan ez dela subrogazio eskubidea bermatzen. Baina, hau esanda, agerikoa da aurreko egoerarekin alderatuta onartutako legeak zegoen egoera nabarmen hobetzen duela. Beraz, argi eta garbi esan dezakegu Nafarroan milaka langileren lan-baldintzak hobetzea lortu dugula”.

“Zoritxarrez, Euskal Autonomia Erkidegoan egoera oso bestelakoa da. Bi urtez ahal zituzten traba guztiak jarri eta gero, EAJk eta PSE-EEk ezezko borobila eman diote 110.000 herritarren babesa jaso zuen ekimen honi. Izan ere, adostu duten legeak guztiz desitxuratzen du guk aurkeztu genuen testua”.

Honek guztiak ondorio batetara eramaten du Igor Eizagirre. “Gezur hutsa da esaten dutenean herritarren eta zerbitzu publikoen alde lan egiten dutela. Ez, lagun dituzten enpresa eta interesen alde agintzen dute, langileak zapalduz zerbitzu publikoen kontura negozioa egin dezaten. Hor dago berriki Bidasoako Ospitalearen lizitazioan gertatu dena. Eusko Jaurlaritzak erreferentziazko hitzarmen gisa Estatu mailakoa jarri du, ez Gipuzkoako ostalaritzakoa. Aldea zein da? Lehenean ordua 5 eurotan ordaintzen da, eta bigarrenean, 11. Lotsagarria da”.

Gizalan federazioko idazkari nagusiak ohartarazi nahi izan zuen Herri Ekimen honen aldeko borroka bizirik dagoela. “Orain aldundiz aldundi eta udalez udal joango gara langile hauen eskubideak bermatzera. Hor daude Durango, Barakaldo edo Zallako udalen adibideak, non gure Herri Ekimenak jasotzen dituen puntu nagusiak onartu diren”.

**Aunque le hayan dicho NO en el Parlamento Vasco, la ILP no ha terminado. Está en nuestras manos que los 55.000 trabajadoras/es afectados/as tengan derecho a la subrogación, derecho a tener un puesto de trabajo y unas condiciones de trabajo dignas**

# “Patronalak ez du zilegitasunik, ez du bere ordezkaritza inoiz frogatu”

UNAI MARTINEZ – INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA FEDERAZIOKO IDAZKARI NAGUSIA




Hitz gogorrak izan zituen Industria eta Eraikuntza federazioko idazkari nagusiak Euskal Herriko patronal nagusien aurka. “Hemen ELAko milaka eta milaka ordezkari bildu gara. Eta zuek guztiak hautatuak izan zarete. Zuen enpresa edo lantokietan hauteskundeak egin dira, eta bozketa horietan langileek erabaki dute zuek izango zaretela euren ordezkariak. ELA makina bat hauteskundetara aurkezten da. Batzuk irabazi egiten ditugu, beste batzuk galdu, baina enpresa eta sektore guztietan dugun ordezkaritza bozaz boza erakutsi dezakegu. Eta, zorionez, hauteskundeen emaitzek erakuste dute ELA dela Euskal Herriko sindikatu nagusia, alde handiz gainera”.

“Baina, eta patronalak? Zein zilegitasun du? Zertan oinarritzen da bere ordezkaritza? Zein momentutan eman dio herri honek patronalari egun duen botere guztia? Euskal Herrian dugun patronalak ez du boto-kutxa bat bere bizitza osoan ikusi, ezta urrutitik ere. Berriki ELAko kide batzuk bilera bat izan genuen patronaleko arduradun ohi batekin. Honakoa galdetu genion: zenbat enpresa ordezkatzen ditu patronalak sektore desberdinetan? Hona bere erantzuna: sektore batzuetan gutxi, eta beste batzuetan enpresa bakar bat ere ez. Lotsagarria da jende honek jokatzen duen papera, inor ordezkatu gabe milaka pertsona miseriara zigortu nahi dituzte. Nola liteke teorian demokratikoa den gizartean, demokrazia ezan oinarritutako lobby batek hainbeste botere edukitzeak? Nola onartzen dute hori gobernuek?”

Unai Martinezek uneotan borrokan dauden langile guztiak aipatuz bukatu nahi izan zuen bere hitzaldia. “Animo guztiei, bizi dugun egoera bidegabe honen aurrean borrokatzea erabaki duzuelako. Animo eta argi izan zein den helburua: lan zentro guztietan boterea eraikitzea. Behetik hasita eraiki dezagun Euskal Herria solidario eta soberano bat. Uneotan milaka gara lanpostuen defentsan eta prekarietatearen aurka borrokan ari garen pertsonak. Patronalak argi du zein den bere helburua: gure miseriaren kontu euren irabaziak handitzea. Horregatik argi izan behar dugun zein den gurea: langileak antolatuz aberastasunaren bidezko banaketa lortzea, gizarte hobe, justu eta solidarioago bat lortzeko”.

**Tenemos una patronal que no ha visto una urna ni de reojo. Una patronal que es tan pobre que sólo tiene dinero**

# “1.200 euroren aldarrikapena guztiona da”

LEIRE TXAKARTEGI – LAN OSASUN ETA SEGURTASUN ARDURADUNA




Leire Txakartegik langile-klaseak bizi duen abagune gogorra aipatuz hasi zuen bere parte-hartzea. “2008tik hona gizartearen gehiengoari lapurretan ari zaizkigu oso modu nabarmenean, gutxiengo pribilegiatu baten mesedetan. Lan errentetatik kapitalera izugarrizko diru-transferentzia bideratzeko estrategia politiko oso bat jarri dute martxan. Abagune honen kudeaketan hartu diren erabaki guzti-guztien atzean aukera politiko garbi bat egin dute: gutxiengo baten mesedetan aritu, jendartearen gehiengoaren kontra. Nagusi den sistema kapitalista eta patriarkalean sakontzea erabaki dute”.

Egunez egun prekarietatea, miseria eta pobrezia handituz doazen garai hauetan ELAko militante talde batek martxan jarri duen kanpainaren berri eman zuen. “ELAko militante talde batek '1.200 eurotik gora!' kanpaina martxan jarri nahi izan du, eta, noski, kanpaina geurea egin dugu, eta geureago egin behar dugu. Azken asteetan sare sozialetan eta kalean oso presente egon da. Kanpaina honek prekarietatea salatu nahi du. Blogean sartzen bazarete –http://1200eurotikgora.eus–, irakurri ezazue manifestua eta zuen atxikimendua eman. Agiri horretan prekarietatea indefentsio edo babesgabetasun bezala definitzen da, eskubideen urraketa gisa; lan duinaren kontrakotzat jotzen da prekarietatea, bizitza beraren prekarietatea da salatzen dutena”.




Ekimenaren aldarrikapena guztiona dela nabarmendu ostean, helburu hori lortzea ezinbestekoa izateaz gain posible ere badela esan zuen Txakartegik. "Guretzako aldarrikapen hau enpleguari erabat lotuta dago. Ezinbestean enplegu duina sortzeko politikak eta neurriak eskatzeari lotuta joan behar da. Horretarako, enplegu duina sortzeko, ezinbestekoa da lehenbailehen hainbat neurri hartzea: aurrekontu politikak eta politika fiskalak goitik behera aldatzea, sektore publiko garatzea –batez ere ongizate estatuarekin zerikusia duten zerbitzu publikoak eta zaintza sektoreak indartuz–, enplegu berdeak bultzatu –trantsizio sozial eta ekologikoa abian jarrita enplegu duinak eta iraunkorrak 106.000 enplegu baino gehiago sor daitezke Hego Euskal Herrian–... Agerikoa da badauzkagula proposamenak eta alternatibak: bizitza eta pertsonak erdigunean nahi ditugu. Eta hau lortzea borondate politiko kontu hutsa da”.

**Un salario mínimo de 1.200 euros es posible. Hay riqueza, hay margen suficiente para ello. La tarta sigue creciendo, aunque cada vez se está distribuyendo de manera más injusta**

astekaria

2016-KO APIRILAREN 4-A: ELAKO BATZORDE ERAGILEAREN ADIERAZPENA

# “Estatalizazioak kalte larria eragiten die lan-baldintzei”




**Iragan apirilaren 4an, ELAren Batzorde Eragileak adierazpen bat egin zuen Lan Harreman eta Gizarte Babeseko Euskal Markoaren defentsan eta hitzarmenen etengabeko estatalizazioaren aurka. Estatalizazio horrek larriki kaltetzen ditu euskal langileen lan-baldintzak.**

ELAren idazkari nagusi Adolfo Muñozek adierazpenaren aurkezpenean salatu zuenez, erreforma ezberdinek oso ondorio larriak eragin dituzte: hitzarmenen iraunaldiaren amaiera, enpresa-hitzarmenaren lehentasuna eta negoziazio kolektiboaren estatalizazioa. Gainera, azaldu zuen azkenaldi honetan patronalek eta CCOO eta UGT sindikatuek lan hitzarmenen estatalizazioa gauzatu asmoz hainbat erabaki hartu dituztela. “Estatalizazioaren hipotesia errealitate gordina bilakatu zaigula agerian geratu da, eta honek kalte larria eragiten die lan-baldintzei".

ELAko Batzorde Eragileak garrantzia berezia eman nahi izan zion negoziazio kolektiboaren estatalizazioaren salaketari. “Estrategia honek helburu argi bat du: erreformei ahalik eta zuku gehien ateratzea etekinak ugaltzeko, pobretutako lan-baldintzen kontura. Hala jokatzen du, esaterako, Mondragon Korporazioak (MCC zenak). Talde honek bere langileei Sukaldaritzako Hitzarmen Estatala aplikatzea erabaki du, Autonomi Erkidegoko edo enpresako hitzarmenak negoziatzeko aukerak ukatuz”.

**Jarrera hipokrita.** Adolfo Muñozen esanetan CCOO eta UGT sindikatuen jarrera itxurakeria hutsa da. "Madrilen Zapateroren erreformaz baliatzen dira erabakitzeko euskal gehiengo sindikalek erabakitzea non eta zer negoziatu nahi duten”.

Bestalde, ELAko idazkari nagusiak azpimarratu nahi izan zuen egun EAJk daukan jokabideak ez daukala zerikusirik duela bi hamarkada zeukanarekin. “1994an negoziazio kolektiboa zentralizatzeko saioa izan zenean oso bestelakoa izan zen bere jarrera. Hemerotekak errepasatuz, bitxia da ikustea nola defendatu zuen garai hartako lan ministroak –Griñan– PSOEren eta EAJren arteko akordioa, CCOO eta UGTren kritikei aurre eginez: 'EAJrekin adostutako aldaketarekin ez da ezer hausten. Gauza bakarra gertatzen da, negoziazio kolektiboaren artikulazio handiagoa eta askoz ere demokratikoagoa', adierazi zuen garai hartan. Argi ikusten da, beraz, hogeita bi urte igarota EAJren posizio politikoak izan duen atzerakada larria”.

Bere agerraldia amaitzeko, ELAk euskal indar politiko guztiei helarazi nahi izan zien aberastasunaren banaketarako tresna egokirik gabe autogobernua hutsala dela. “Ez dago autogobernurik negoziazio kolektiborik gabe; ez dago autogobernurik lana duintzeko eta aberastasunaren banaketa zuzenagoa egiteko lagungarri diren hitzarmenak indargabetzen badira”.

## “SIN NEGOCIACIÓN COLECTIVA NO HAY AUTOGOBIERNO”

**El pasado 4 de abril, el Comité Ejecutivo de ELA realizó una declaración institucional en defensa del marco Vasco de Relaciones laborales y de Protección Social** y en contra de la progresiva estatalización de los convenios . Una estatalización que empeora gravemente las condiciones laborales de los trabajadores y trabajadoras vascas.

El comité ejecutivo, en un amplio documento (descargable en **www.ela.eus**) analiza cómo se ha llegado a la situación actual y concluye que es inaceptable que desde el Estado se impida a una mayoría representativa democrática regular, con plena eficacia, los contenidos de las condiciones de trabajo. “Negar esa posibilidad vulnera, en nuestra opinión, la libertad sindical”, afirma el sindicato.

ELA descalifica, así mismo, que esa estatalización, además, se lleve adelante a través de una patronal que no acredita su representación para negociar, al tiempo que critica duramente la colaboración del Gobierno de Urkullu con las estrategias patronales. “Si se ve con un poco de perspectiva, esta estrategia de empobrecimiento salarial afecta muy negativamente a la cohesión social de nuestro país, y el Gobierno Vasco participa de ello”, se afirma en el documento.

Finalmente, ELA traslada a todo el ámbito político vasco que sin instrumentos válidos que ayuden a la distribución de la riqueza, el autogobierno está vacío de contenido. “No hay autogobierno sin negociación colectiva; no hay autogobierno anulando la eficacia de los convenios que ayudan a dignificar el trabajo y distribuir la riqueza de forma más justa”, concluye.

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

**Franqueo concertado nº 08/207**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus